

**Bideoaren erreferentzia:** Bagoaz A2B18i *Aurkezpen kaxkarra*

**Maila:** A2

**Helburua:** - Gertatutako zerbaiten kontakizun laburra egitea.

Gertaera baten ideia nagusiak ulertzea.

**Funtzioak:** Interesa adieraztea, iraganeko gertaera bat kontatzea, iritzia ematea

**Azken jarduera:** Talde osoaren aurrean aurkezpen txiki bat egitea

**Adierazpide linguistikoak:**

- Kausazko esaldiak: **(e)lako, bait, eta**
- Lexikoa:
  - Sentimenduak: urduri jarri, gaizki/txarto pasatu, gaizki egin/sentitu...
  - Eskola, azterketa

## 1- IKUSI AURRETIK

Geroxeago ikusiko duten bideoari begira, zenbait egoera aurkezten dira, gutxi-asko, denok daukaguna edo idan dezakeguna esperientzia txarren bat: eskolan, lan-elkarrizketa batean, gidabaimena ateratzerakoan... Esaldiak osatzeko, hiru zutabetan dago antolatuta: egoera, sentimenduak eta arrazoiak ematea. Zenbait ereduzko esaldi ere badituzte bertan. Binaka edo hirunaka egin dezakete lan, eta ondoren taldean ateratako pasadizo edo gertaeraren bat kontatu guztien aurrean.

Bideoa ikusi aurretik, ikusiko dutenaren gainean hipotesiak egiteko galdera bat daukate, 3 aukerarekin. Hori ere talde txikitik egin dezakete. Erantzuna bideoa ikusitakoan jakingo dugu..

**Erantzunak:** nagusiki b), baina baita c) ere aipatzen dute bideoan.



## 2- IKUSI BITARTEAN

Bideoa ondo ulertu duten erreparatzeko tartea. Hasieran bakarka eta gero bikoteka adostu behar dituzte erantzunak. Zuk baloratu zenbat aldiz ikusi behar duten bideoa, osorik edo zatika.


Egia/Gezurra 7 esaldi sailkatu behar dituzte. Gogoratu lehenago egindako ariketa ere (bideoari buruzko hipotesiak egitea, alegia) komentatzea.


**Erantzunak:** Egia:1-2-6 Gezurra: 3-4-5-7



## 3- IKUSI ONDOREN


  Kausako esaldietan jarriko dugu fokua. Hasteko, Jon eta Amaiaren arteko elkarrizketa-zati bat osatzeko eskatuko diegu ikasleei; bertan zenbait kausazko esaldi ageri dira.

**Erantzunak:** 1) ez duzulako prestatu 2) lotan egoten zarelako 3) tabernan gelditzen.... 4) lagundu ez didazulako

 Ondoren, 'Jarri arreta hizkuntzan' Kausazko esaldiei buruzko azalpenak datoz. Modu teorikoan, hiru forma ageri dira: ....**-elako, bait..**, eta **eta**.

 **Oharra:** Elkarrizketan bakarrik -elako ageri da. Zuk ikusi zenbateraino merezi duen 3 formak lantzea edo bakarra.

  Jarraian, kausazko esaldiak lantzeko ariketa analitiko bat dago. Kausazko esaldia (2. zutabekoa) osatu eta dagokion 1. zutabeko esaldiekin lotu behar dute.

 **Oharra:** Ariketa osoa -elako formarekin dago programatua, baina, nahi izatera, erabil daitezke 3 kausazko formak.

**Erantzunak:**

1- Ez duzu azterketa gainditu

liburutegian lotan egoten zarelako

<p>2- Ez duzu autobusa harrapatu          3- Jendaurrean gaizki pasatzen dut          4- Dibortziatu egin ziren,          5- Egia da          6- Betaurrekoak erosi ditu          7- Urtegiak lehor daude          8- Ez nuen erosi          9- Atzerrira joan zen          10. Oso gustura dago</p>	<p>etxetik berandu atera zarelako.          urduri jartzen naizelako.          gaizki moldatzen zirelako.          nik esaten dudalako.          ondo ikusten ez duelako.          euririk egin ez duelako.          oso garestia zelako.          hemen lanik aurkitu ez zuelako.          sari bat eman diotelako.</p>
--	--

Amaitzeko, azken ataza daukagu. Talde osoaren aurrean aurkezpen bat egin behar dute. Zeri buruz egin behar duten larregi ez estutzeko, esango diegu gustuko duten zerbaiti buruz taldeari proposamen bat egiteko (nahi izatera, hau aurretik egin lezakete, eta zirriborro moduko bat idatzi): gustuko liburu, film, disko, toki...

Horren ondoren, talde txikitari jarri eta komentatuko dute zer-nolako sentazioak izan dituzten, gustura geratu diren bere buruarekin, etab. Jarraian, taldekideen inpresioak jasoko dituzte. Badituzte eredu batzuk jarrita horretarako.

**Oharra:** Jarduera hau interesgarria izan liteke ikasprozesuaren gaineko hausnarketa egiteko, erabiltzen ditugun ikasestrategien gainean pentsatzeko, alderdi emozionala azaltzeko (pozak, ezinak...)

**TRANSKRIPZIOA**

JOSU.— Zer gaizki!, zer gaizki!

AMAIA.— Egon zaitetz lasai, ez zaizu hain gaizki atera eta.

JOSU.— Ez dakit zer gertatu zaidan. Ohituta nago jendearen aurrean hitz egiten.

AMAIA.— Har ezazu lasai! Aurkezpen txukuna izan da.

JOSU.— Euskaltegi batean irakasle aritu nintzen, eta ez nintzen inoiz urduri jartzen; baina gaur...

AMAIA.— Bueno, eta zer nahi duzu?, mimoak egitea? Gizajoa animo e, oso ona zara... Hurrengoan hobeto egingo duzu!

JOSU.— Tuntuna!

JOSU.- Egia esan... gaia ez nuen behar den bezala prestatu.

AMAIA.— Hori garbi dago.

JOSU.— Nork prestatu nahi du halako komunikazio-kanpaina inozoa? Zer eta antxoa zikin batzuk saltzeko.

AMAIA.— Mundu honetan lan egiteko zortea baduzu, horrelakoak eta xelebregoak egin beharko dituzu. Eta, gainera zuri...

JOSU.— Gainera niri, zer?

AMAIA.— Gainera zuri antxoak izugarri gustatzen zaizkizu.

JOSU.— Bai, baina jateko; nik ez dut haietaz hitz egin nahi.

AMAIA.— Bueno, Josu, nahikoa da. Aurkezpena ez duzu ondo egin ez duzulako prestatu, liburutegian lotan egoten zarelako eta klasera joan ordez tabernan gelditzen zarelako.

JOSU.— Eta zuk lagundu ez didazulako!

AMAIA.— Horixe bakarri behar genuen. Errua nirea izatea! Garbi dago arrazoi nuela, amatxo behar duzu ondoan!

JOSU.— Bai, hala da. Nire amatxo izan nahi duzu?

AMAIA.— Begira, zoaz pikutara!